

University Educators for Sustainable Development (UE4SD)

Prentsa oharra: UE4SD proiektua amaitzeko, prestakuntza profesionalerako tresna paregabe bat aurkeztu dute

2016ko irailaren 30a

University Educators for Sustainable Development (UE4SD) proiektua, Europa osoko goi mailako hezkuntza erakundeek garapen iraunkorrerako osaturiko partzuergoan oinarritutakoa, 2016ko irailean amaituko da. Joan diren hiru urte hauetan, UE4SD proiektuak bere helburuak lortu ditu hezitzaileen garapen profesionala ardatz zuten jarduera eta truke batzuen bitartez. Proiektuaren harira ekoitzi diren materialek garapen iraunkorrerako hezkuntzaren (GIH) ikuspegi partekatua ematen dute, kultur testuinguruak kontuan hartuta. Horrela, hezitzaileek errazago garatuko dituzte GIHren arloko kompetentziak, eta hezkuntza politika esanguratsuak sustatuko dira hainbat mailatan, hala erakundeetan nola European. Hauek dira proiektuaren emaitza nagusiak:

- Europako 53 bazkidez osaturiko sare bat sortu da, urtero bilerak antolatuz, elkarrekin on-line komunikatuz, eta ekarpen aktiboak eginez bai proiektuaren garapen prozesuari, bai proiektuaren emaitzei.
- Kontsulta prozesu bat gauzatu da, eta, horrekin, zenbait txosten osatu dira. Hala, GIHK European duen garapen profesionalaren “egungo egoera” aztertzeko ikuspegi bat eraiki da, maila teorikoan zein praktikoan.
- Hautaturiko egitasmo eta proiektuei buruzko esperientziak eta gogoetak partekatu dira, *Leading Practice Publication* delakoa sortzeko (GIHren arloko garapen profesionalaren eredu adierazgarriak jasotzen ditu).
- *UE4SD Akademiaren* programa pilotu bat jarri da abian, eta, horren bidez, GIHren arloko kompetentziak garatzen ari diren unibertsitate taldeekin izandako esperientzia errealean eredu bat eskaini dugu.
- Proiektuarekin ikasitako guztiaren laburpena egin dugu, eta *UE4SD Akademiaren* jardunbide eta produktuen adibide nabarmenak bildu (*baliabdeen on-line plataforman* daude jasota).

Proiektuaren funtsezko azken jarduera *UE4SD Akademia* izan da; bertan, proiektuaren aurreko faseen emaitzak jaso dira. *UE4SD Akademia* garatzeko prozesua Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren zuzendaritzapean diseinatu eta abiatu da, eta UE4SDren bazkide diren lau erakunde esku hartu dute lan horretan. *UE4SD Akademiaren* xede nagusia da unibertsitateetan erakunde aldaketa bultzatzea, hezitzaileek GIHren arloko kompetentziak garatuz; kompetentzia horien barruan sartzten dira lider izateko eta aldaketak egiteko gaitasunak, ezinbestekoak baitira iraunkortasuna lortzeko erakunde prozesuei bide emateko.

UE4SD Akademiak espazioa, denbora eta laguntza eman die talde horiei, alde batetik, gogoeta egin dezaten eta, bestetik, *Akademiaren* proiektuak ahal bezainbeste garatzeko eta:

- GIHren arloko alderdi kulturalak kritikoki islatzeko,
- GIHren arloko garapen profesionalari buruzko ezagutza sortuko duen elkarriketa erabiltzeko,
- GIH praktikan nola jarri jakiteko bai pertsonalki, bai kolektiboki,
- GIHren arloko proiektuetan erronkak eta aukerak identifikatzeko.

Horrela, *UE4SD Akademiak* aukera handiagoa izango du GIHren arloko kompetentziei balioa emateko eta jardunbide profesionalak ezartzeko. Erakunde bakoitzak GIHren arloan eta UE4SDren esparruko beste ekintzetan izan duen garapena oinarri hartuta, *UE4SD Akademiak* unibertsitateei aukera ematen die GIHren alorrean elkarrekin jarduteko, baita proiektu honetatik harago ere.

UE4SD proiektuan sortutako sareak honako urrats hauek egin behar ditu orain:

- Emaizak partekatu: proiektuaren bidez sortutako produktu eta ezagutzen berri eman, argitalpenak kaleratuz eta askotariko ekitaldi nahiz foroetan parte hartuz.
- Ikasitakoa aplikatu: ikasitakoa eta lortutako esperientzia bazkideen lanean aplikatu, eta eskura dauden aukerak erabili ikasitakoa praktikan jartzeko eta GIHn sakontzeko.
- Lankidetzari eutsi: lotuta jarraitzeko bideak bilatu eta elkar gidatu, parekoen arteko trukeen bidez edota UE4SDren harira sortutako egitasmoekin.
- Lanean eragina izan: proiektutik sortutako baliabideak eta ikasketak erabili, sektore horretako garapen profesionalari buruzko ikuspegia eta politikak aldatzen hasteko.

Oro har, UE4SD proiektuak unibertsitateetako langileak garatzeko jardunbide berria eta eraginkorra ezartzen du. Jardunbide hori lagungarri izango da GIHren arloko politikak arrakastaz garatzeko; bereziki, UNESCOren Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Ekintza Globaleko Programaren bitartez estatuan ezartzen hasi diren politikak eta UNECEren Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Estrategia. Proiektuak GIHren esparruan funtsezkoak diren hainbat eragile erakarri ditu: 33 herrialdetako 53 bazkide hartu ditu, eta eragina izan du Europako 3.000 unibertsitateetan eta 24 milioitik gora ikaslerengan. Lankidetzak estuko hiru urte hauetan, proiektua Erresuma Batuko University of Gloucestershire-k zuzendu du, eta lau eskualdetan bereizi da: Iparraldean (University of Gloucestershirek koordinatuta), Hegoaldean (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Espainia), Ekialdean (Charles University Prague, Txekiar Errepublikan) eta Mendebaldean (Leuphana University of Lüneburg, Alemania).

Honako esteka honetan aurki daitezke proiektuaren material guztiak: <http://www.ue4sd.eu/>. Bestalde, webgune honetan daude oinarrizko baliabide nagusiak eta etorkizunean lankidetzan jarduteko aukerak: <http://platform.ue4sd.eu/pathways.php>.

UE4SD proiektutik sortutako UE4SD Akademia Europako Batzordeak lagundu du diruz, Lifelong Learning programaren bidez. Esteka honetan eskuragarri dago UE4SD Akademiaren inguruko informazioa: http://platform.ue4sd.eu/ue4sd_accademy.php.

UE4SD Akademiari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Javier Benayas Work Package Lead irakaslearekin, javier.benayas@uam.es helbidera idatzita.

Bestalde, UE4SD proiektuari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu, harremanetan jarrita Gibraltarreko Unibertsitateko Project Lead Daniella Tilbury irakaslearekin (daniella.tilbury@unigib.edu.gi) edo Gloucestershireko Unibertsitateko Project Coordinatorarekin (ue4sd@glos.ac.uk); bestela, jo ezazu proiektuaren webgunera: <http://www.ue4sd.eu>.